

KONTROL MOZIOA

KONKORRENEKO BIZILAGUNEK EGINDAKO MANTENU ESKAERAK DIRELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2020ko urtarrilaren 22an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2019ko urrian delegatuari galdera egin genion 2019-2020ko asfaltatze planaren inguruan. Delegatuak idatziz emandako erantzunean kaleak eta bideak asfaltatzeko lau diru-partidekin egingo diren lanen zerrenda agertzen da.

Egian egin beharreko lanen artean¹ ez zaio aipamenik egiten Konkorrereka kaleari, nahiz eta, 2019an bizilagunek zonalde hau konpontzeko lau eskaera -gutxienez- egin dituzten (bat erregistro bidez 201919900021227 zenbakiarekin eta hiru, web orriaren bidez 000D5316, 000D7656 eta 000DAEB2 zenbakiekin). Eskaera hauetan bizilagunek esaten dute kiroldegira eta Karmengo Amara joateko erabiltzen duten bidea oso egoera txarrean dagoela eta erortzeko arriskua dagoela, batez ere, euria egiten duenean.

Batzordeetan delegatuak adierazi digu Udalak ezin duela zonalde hau konpondu jabegoa pribatu batena delako. Bizilagunekin kontrastatu eta gero aipatzen digute duela urte batzuk Udalak barandila txuri bat jarri zuela eta eskailerak konpondu zituela; hortaz, ezin dugu ulertu nolatan konpondu daitezkeen gauza batzuk eta beste batzuk ez. Gainera, jabego pribatukoa izan arren, ez da justifikatzen bizilagunen eskaerekiko erantzun eza, izan ere, 2019ko martxotik ez dute erantzunik jaso.

Gogorarazi nahi dugu gai hau ez dela berria. Hain zuzen ere, 2017ko martxoaren 15ean Konkorrereko bizilagunek mantenuarekin erlacionatutako kexa bat aurkeztu zuten. Bertan adierazten zuten zonaldea abandonatuta zegoela mantenimendu ikuspegitik: belarra mozteko beharra, lorategiak zaindu gabe eta abar.

2017ko apirilko batzordeetan bide publikoen delegatuak esan zigun lorategiak pribatuak zirela eta horregatik ez zela mantenu lanik egiten. Partzela publikoen zerrenda begiratu gero, bizilagunek arrazoia zutela ikusi genuen; hau da, Aitor Ikastola alboko partzelak publikoak zirela (7 eta 9 zenbakiak, adibidez) eta eskuinekoak pribatuak.

Behin baino gehiagotan ikusi dugu arazo hau Udal Gobernuarekin: bizilagunen mantenu eskaera bat jaso eta eremu pribatua dela erantzun, nahiz eta gero publikoa izan.

¹ El lote I se aprueba con un importe de **399.730 euros**. Consiste en la reparación puntual de baches en el pavimento de diferentes calzadas. En concreto alcanza a baches localizados en Egia: Paseo Duque de Mandas, Paseo Xabier Aizarna, Calle Virgen del Carmen, Calle Ametzagaina y Calle Jaialai.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kexa aurkeztu duten auzotarrei esan diezaiera zein eremu den pribatua eta zein publikoa, asfaltatze lanak zeinek egin behar dituen argitzeko.

Donostian, 2020ko urtarrilaren 24an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia